# Xedapen Orokorrak

## LEHENDAKARITZA

**55**

**7/1993 LEGEA, abenduaren 21ekoa, OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea sortzekoa.**

**Eusko Legebiltzarrak ondoko Legea onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei:**

ABENDUAREN 21EKO 7/1993 LEGEA, OSALAN-LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO EUSKAL ERAKUNDEA SORTZEKOA.

Zioen adierazpena

I

Konstituzioaren 40.2 atalak laneko segurtasuna eta higienea zaintzeko agindua ematen die herri-aginteei. 43.1 atalak osasuna babesteko eskubidea aitortzen die guztiei. Atal horretako 2. puntuan herri-aginteei aitortzen zaie, behar diren aurre hartzeko neurriez eta zerbitzuez baliatuz, osasun publikoa antolatzeko eta zaintzeko aginpidea.

Lanaren Nazioarteko Erakundearen 155. Itunak, langileen segurtasun eta osasunari eta laneko ingurugiroari buruzkoak, langileen segurtasun eta osasunaren eta laneko ingurugiroaren arloan politika egokia antolatu beharra ezartzen du. Itun horretan, lanean ari diren guztiak, herri-lanariak barne, dira langile. 161. Itunak ere, laneko osasun-zerbitzuei buruzkoak, jasotzen ditu zenbait arau eta jarraipide (ez baita oraindik berretsi); eta bertan jasotakoa ezinbestez kontuan hartu beharrekoa da Euskal Autonomi Elkartean laneko segurtasun eta osasunari buruzko politika kudeatuko duen erakundea eratzeko.

Kontseiluaren 1989ko ekainaren 12ko 89/391/EEE arteztarauean, langileen laneko segurtasuna eta osasuna hobetzeko baldintzak ezartzen dira. Arteztarau horren ondoren eman direnetan laneko arriskuei aurre hartzeko eta lantokietan segurtasuna eta osasuna zaintzeko eta arrisku bereziez babesteko arau orokorrak finkatu izan dira. Aipatutako arau horiek denak nahitaez begiratu beharrekoak izan dira lege hau finkatzeko.

Estatuko legediari dagokionez, Langileen Araudian langile guztiei aitortzen zaie gorputz-osotasuna eta segurtasun eta higienearen arloan behar bezala babestuta izateko eskubidea. Eskubide horren garapena maila txikiko Konstituzio aurreko arauetan dago banatuta. Bestalde, Osasunaren Lege Orokorrak, Euskal Autonomi Elkarteko herri-aginteen araugintza mugatzeko oinarrizko arauak jasotzen ditu laneko osasunaren arloari dagokionez.

# Disposiciones Generales

## PRESIDENCIA

**55**

**LEY 7/1993, de 21 de diciembre, de creación de OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales.**

**Se hace saber a todos los ciudadanos de Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la siguiente:**

LEY 7/1993, DE 21 DE DICIEMBRE, DE CREACIÓN DE OSALAN-INSTITUTO VASCO DE SEGURIDAD Y SALUD LABORALES.

Exposición de motivos

I

El artículo 40.2 de la Constitución manda a los poderes públicos velar por la seguridad e higiene en el trabajo, y el 43.1 reconoce a todos el derecho a la protección de la salud, atribuyendo el número 2 de dicho precepto constitucional a los poderes públicos la competencia de organizar y tutelar la salud pública a través de las medidas preventivas y de las prestaciones y servicios necesarios.

El Convenio número 155 de la OIT, sobre seguridad y salud de los trabajadores y medio ambiente de trabajo, establece la necesidad de articular una política coherente en materia de seguridad y salud de los trabajadores y medio ambiente de trabajo, entendiendo que el término trabajadores comprende a todas las personas empleadas, incluidos los empleados públicos. También el Convenio 161, sobre los servicios de salud en el trabajo, contiene principios y orientaciones (en tanto no sea ratificado) que son referencia obligada a la hora de constituir un ente gestor de la política de seguridad y salud laborales en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La mejora de la seguridad y de la salud de los trabajadores en el trabajo ha sido objeto de la directiva 89/391/CEE, del Consejo, de 12 de junio de 1989, que ha sido seguida de otras específicas que vienen a establecer los principios generales relativos a la prevención de riesgos profesionales y a la protección de la seguridad y salud, así como las disposiciones mínimas en materia de seguridad y salud en los lugares de trabajo y ante riesgos específicos. Todo este conjunto normativo constituye, así mismo, obligado marco de referencia de la presente ley.

Finalmente, en el ámbito de la legislación del Estado, el Estatuto de los Trabajadores reconoce a los trabajadores el derecho a su integridad física y a una protección eficaz en materia de seguridad e higiene, cuyo desarrollo se encuentra en la actualidad disperso en normas preconstitucionales de mínimo rango. De otro lado, la ley General de Sanidad contiene normas básicas en materia de salud laboral que delimitan la actuación normativa de los poderes públicos de la Comunidad Autónoma vasca.

II

Euskal Autonomi Elkarteko Autonomi Estatutuaren 9. ataleko 2. puntuko b) idazatian ezartzen denez, euskal herri-aginteek bizitzako eta laneko baldintzak hobetzeko politika sustatuko dute. Bestalde, Euskal Autonomi Elkarteak, Estatutuaren 18. ataleko 1. puntuak dioenez, barruko osasunari buruzko legeak garatu eta gauzatzeko aginpidea du. Lege horretako 12. ataleko 2. puntuan ezarritakoaren arabera, Autonomi Elkarteari dagokio laneko legedia gauzatzea; 10.23 atalean jasota dagoenez, aginpide osoa du koperatiben arloan, eta 10.4 atalean ezarritakoari jarraiki, Euskal Autonomi Elkarteko funtzionarien eta toki-administraziokoen estatutuari buruzko legeak egiteko eta gauzatzeko aginpidea du.

Esku arteko lege honek aipaturiko arau guztiak hartzen ditu oinarritzat, banatu ezin diren lan- eta osasun-gaiak, hau da, alderdi askotariko arazoa aztertzen baitu. Lege-egitasmo honen bitartez sortuko den erakundea, langileen osasuna eta segurtasuna sustatzeko eta arriskuei aurre hartzeko egitekoetan arituko da, Langileen Araudiak arautzen dituen lan-harremanen esparruan. Horretaz gain, lege honen bidez edukiz jantzi nahi da euskal herri-administrazioetako funtzionariek, lankide-koperatibetako koperatiba-bazkideek eta gainerako koperatibetako lan-bazkideek lanean segurtasun- eta osasun-baldintzetan iharduteko duten eskubidea.

III

Euskal Autonomi Elkarteak laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan dituen egitekoak deszentralizatzeko asmoa hiru ikuspuntutatik hartuta arrazoitu daiteke.

Lege-egitasmoa onartuz gero eratuko den zerbitzua administrazioko autonomiadun erakundea izango da. Horrela, laneko segurtasuna eta osasuna ulertzeko modu berrien aurka joanez orain arte Lan eta Osasun Sailen artean banatuta zeuden egitekoak baterabildu egingo dira. Banaketa hori oraindik ere indarrean egotea ez dator bat, inola ere, laneko segurtasunaren eta osasunaren ikusmolde berriekin; orain, errealitate bakar baten osagaitzat hartzen baitira biak. Era berean, Lanaren Nazioarteko Erakundearen itunetan emandako arau eta jarraipideen aurka doa. Itun horietan langileen segurtasun eta osasunaren arloan politika egokia antolatu beharra ezartzen da.

Bada deszentralizazio hori arrazoitzeko beste alderdi bat. Baztertu egin nahi da, ahal den neurrian behintzat, autonomi administrazioak laneko segurtasun eta osasunaren arloan duen polizi ahalmena. OSALAN funtsean zerbitzu-emaile izango da, lan-emaileen eta langileen arteko lankidetza lortzeko zerbitzua hain zuzen, lantokietan laneko segurtasun eta osasunaren mailak hobetzeari begira ihardungo duena. Argi dago ezin duela erabat baztertu eta ahaztu zigor-alderdia, baina arlo horretan teknikari edo profesional baten moduan ihardun behar du. Erakunde horretan arituko

II

El Estatuto de Autonomía de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en su artículo 9 número 2, apartado b), establece que los poderes públicos vascos impulsarán particularmente una política tendente a la mejora de las condiciones de vida y de trabajo. Así mismo, la Comunidad Autónoma del País Vasco ostenta competencia de desarrollo legislativo y ejecución en materia de sanidad interior, en virtud del artículo 18 número 1 del Estatuto. En virtud del artículo 12 número 2 de dicho texto legal, corresponde a la Comunidad Autónoma la ejecución de la legislación laboral, ostentando también competencia exclusiva en materia de cooperativas, a tenor del artículo 10.23, y competencia de desarrollo legislativo y ejecución en relación con el estatuto de los funcionarios del País Vasco y de su Administración Local, de acuerdo con lo previsto en su artículo 10.4.

La presente ley tiene a todos los preceptos citados como títulos habilitadores, al tratar sobre una materia compleja en la que, sobre todo, aparecen entremezclados de forma inescindible la materia laboral y la materia sanitaria. En efecto, el ente que se crea está llamado a intervenir en funciones de promoción y prevención de la salud y la seguridad de los trabajadores, en el ámbito de la relación de trabajo regulada por el Estatuto de los Trabajadores, pero no sólo en ella, ya que la presente ley trata de llenar de contenido el derecho a la segu ridad y salud en el trabajo de los funcionarios de las administraciones públicas vascas y de los socios cooperativistas de las cooperativas de trabajo asociado, y socios de trabajo de las demás cooperativas.

III

La descentralización de las funciones que en materia de seguridad y salud laboral ostenta la Comunidad Autónoma vasca se justifica desde una triple perspectiva.

En efecto, a través de la personificación de este servicio como organismo autónomo administrativo se logra dar unidad y coherencia al ejercicio de funciones que desde siempre habían estado disociadas en los Departamentos de Trabajo y de Sanidad, y cuyo ejercicio había discurrido por caminos paralelos. La pervivencia de esta situación pugna con una concepción moderna de la seguridad y salud laborales, en la que ambos elementos aparecen como parte de una misma realidad. Pugna así mismo con los principios y orientaciones que se deducen de los convenios de la OIT que exigen la formulación de una política nacional coherente en materia de seguridad y salud de los trabajadores.

La descentralización también se justifica desde la perspectiva de disociar, en la medida de lo posible, la potestad de policía de la administración autonómica en materia de seguridad y salud laboral. En este sentido, OSALAN se configura como un servicio esencialmente de prestaciones, un servicio que busca la colaboración de empleadores y empleados en orden a potenciar y mejorar los niveles de seguridad y salud de los centros de trabajo. Cierto que no puede desentenderse del todo del aspecto sancionador, pero en él su actuación ha de ser técnico-profesional. El prestigio, cualificación e im-

diren langileen ospeak, kualifikazioak eta alderdikeriarik gabe iharduteak izugarrizko eragina izango du egintzen nondik-norakoa zehazteko orduan. Polizi iharduna lan-agintarien esku geratuko da.

Azkenik, zerbitzu pertsonifikatua izateak erraztu egingo du gizarte-sailek bertan parte hartzea, eta hala erakundearen iharduna eraginkorragoa izango da eta onarpen zabalagoa izango du gizartean.

IV

Lege-egitasmo honetan ematen diren arauak bat datoz nazioarteko erakundeek eta legedi berrienek ematen dituzten artezpideekin. Osotasunean hartzen ditu laneko segurtasuna eta osasuna, orain artean administrazioaren erantzukizunpeko bi arlotan banatuta agertzen baitziren. Bata osasun-arloari zegokion eta bestea lan-arloari. Banaketa horrek, garbi ikusi daitekeenez, ondorio kaltegarriak ekarri ditu.

Sortuko den autonomiadun erakundean laneko osasun-unitatea eratuko da. Ihardunean Osasun Sailaren menpe egongo da, osasun-agintariek arlo horretan duten aginpidea bermatzeko. Gaur egungo laneko osasun-unitate berak jarraituko du aurrerantzean. Hala ere, laneko osasun-unitatearen iharduna unitate bakar batean bilduko da. Egitura mailan erakundearen barruan egongo da, Kontseilu Nagusiaren zaintza, babesa eta kontrola izango du, eta zuzendaritza nagusi bakar baten pean egongo da.

Antolaketari dagokionez, gizarte-sailek parte hartzeko organoa eratuko da, baina oso kide gutxiko organoa, bizkor eta eraginkor ihardun dezan. Gaur egunerarte, tankera horretako organoetan kide ugari bildu izan da, eta, hain zuzen ere, horixe da baztertu nahi izan dena, jakina baita kide asko izateak ez dakarrela berez eta besterik gabe partehartze handiagoa; gehienetan, kontrakoa gertatu ohi da: zenbat eta kide ugariago izan, orduan eta okerrago ihardun organoak eta eraginkortasun txikiagoa izan.

Organo horren bidez sarbidea emango zaie sindikatuei, duten ordezkaritzaren arabera, eta ordezkarien kopurua zehazteko, gainerako hauteskundeetan hautetsien kopurua izendatzeko erabiltzen den sistema proposatuko da. Sistema hori orain arte erabilitakoak baino argiagoa da eta bete-betean errespetatzen du ordezkapen-araua.

Bestalde, "Confederación Empresarial Vasca"ren bitartez, lan-emaileek parte hartuko dute Kontseilu Nagusian.

Koperatiben Kontseilu Nagusiko ordezkari bat ere izango da, koperatiben munduan garrantzi izugarria izango duen erabakia jasotzen baitu legeak, hau da, besteren konturako langileen laneko segurtasun eta osasunari buruzko arauak koperatibetan ere betetzekoak dira. Era berean, Eusko Jaurlaritzako ordezkaria ere bertan egongo da, euskal herri-administrazioetako herri-lanariak ere aipatutako arauen ihardute-eremuan sartzen direnez.

parcialidad de su personal contribuirá de forma decisiva a la delimitación de los hechos, pero la actividad de policía quedará reservada en la autoridad laboral exclusivamente.

Finalmente, en un servicio personificado puede lograrse con mayor facilidad la integración de los agentes sociales, lo que proporcionará a la actividad del Instituto una mayor eficacia y aceptación social.

IV

La regulación que se propone, en línea con las pautas marcadas por los organismos internacionales y las más modernas legislaciones, contempla la seguridad y salud laborales desde una perspectiva unitaria, tratando de poner fin a la disociación de funciones en dos áreas de responsabilidad administrativa, una relativa a la sanidad y otra al mundo del trabajo, separación que ha caracterizado el tratamiento de esta cuestión hasta la fecha, con resultados claramente insatisfactorios.

Para ello, se constituye en el seno del organismo autónomo que se crea una unidad de salud laboral que se hace depender funcionalmente del Departamento de Sanidad, salvaguardando la competencia en la materia de las autoridades sanitarias, recibiendo este tratamiento la propia unidad de salud laboral. Sin embargo, la actuación de la unidad de salud laboral se integra en una sola unidad, tanto a través de su propia incardinación órganica como a través de la tutela, impulso y control del Consejo General, así como a través de una única dirección general.

En el terreno organizativo se ha optado por la constitución de un órgano de participación de los agentes sociales de una composición verdaderamente reducida, a fin de lograr que su funcionamiento sea ágil y eficaz. Se ha huido de las representaciones numerosas que han caracterizado la composición de órganos semejantes hasta la fecha, conscientes de que el mayor número de representantes no supone necesariamente una mayor o mejor participación, y por el contrario se perjudica seriamente la eficacia y el buen funcionamiento del órgano.

Se da así entrada a las organizaciones sindicales representativas, en función de su representatividad, que novedosamente se propone medir con la fórmula usada en otras normas electorales para la atribución de escaños. Dicha fórmula proporciona mayor claridad que las usadas hasta la fecha y resulta plenamente respetuosa con el principio representativo.

De otro lado se incorporan al Consejo General los empleadores a través de la Confederación Empresarial Vasca.

También se incorpora un representante del Consejo Superior de Cooperativas, en la medida en que la ley contiene un mandato de suma importancia en relación con el mundo cooperativo al extender a dicho ámbito el bloque normativo relativo a la seguridad y salud laborales del sector de trabajo por cuenta ajena, así como un representante del Gobierno Vasco, al hacerse extensible a las administraciones públicas vascas, en relación con sus empleados públicos, dicho bloque normativo.

V

Lege honetan, bestalde, koperatibetarako eta euskal herri-administrazioetarako propio egindako arauak ematen dira. Hain zuzen ere, laugarren erabaki gehigarriak bi eremu horietara zabaltzen ditu besteren konturako langileentzat indarrean dauden laneko segurtasun, higiene eta osasunari buruzko arauak, horrek, inondik inora, gizarte-segurantzarekin duten jaurpide-moduarekikoan inolako aldaketarik ez dakarrela, arau horiek ezartzeko behar diren erabakiak emateko gaitasuna Jaurlaritzari aitortuz. Dena den, sei hilabeteko epea ematen zaie koperatibei eta administrazioei arau horiek dakartzaten beharretara egokitzeko.

## I. ATALBURUA
## HELBURUA ETA EGITEKOAK

1. atala

OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea sortzen da administrazioko autonomiadun erakunde modura. Lege-nortasuna izango du eta iharduteko gaitasun osoa. Lan eta Gizarte Segurantza Sailari atxikiko zaio. Euskal Autonomi Elkarteko herri-aginteek, laneko ingurugiroak berez dituen arriskuen arrazoiak jatorrian ezabatu edo gutxitzeko asmotan, laneko segurtasun, higiene, ingurugiro eta osasunaren arloari buruz ezarriko dituzten arauak kudeatzea izango da erakunde horren helburua.

2. atala

1.- OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak langilerik duten ekonomia-ihardunbide guztiak izango ditu ihardute-eremu, herri-administrazioak barne. Era berean, lankide-koperatibak eta gainerako koperatibak ere izango ditu iharduteeremu, lan-bazkideei dagokienez.

2.- OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak beregaineko langileek izan ditzaketen arriskuei aurre hartzeko ekintzak sustatuko ditu.

3. atala

OSALANek bere helburuak lortzeko:

a) Iharduketa-egitarauen bidez oinarrituta kudeatuko ditu dagozkion zerbitzuak.

b) Aholkuak emango dizkie enpresei, langileei, enpresarien elkarteei, sindikatuei eta herri-administrazioei.

c) Laneko segurtasun eta osasunaren arloan aurre hartzeko eta teknikazko iharduketen jarraipena eta ebaluazioa egingo du.

d) Aurre hartzeko behar diren neurriak sustatuko ditu.

V

La presente ley contiene también una regulación sustantiva en relación con el mundo cooperativo y con las administraciones públicas vascas. En efecto, la disposición adicional cuarta declara aplicables en estos ámbitos las normas sobre seguridad, higiene y salud laborales vigentes en relación con los trabajadores por cuenta ajena, sin que ello signifique en ningún caso modificación alguna en relación con el régimen de seguridad social en el que se encuentran encuadrados, habilitando al Gobierno para que dicte las disposiciones necesarias que hagan posible dicha aplicación. No obstante, se concede un plazo de seis meses para que tanto las cooperativas como las administraciones se acomoden a los requerimientos de dicha normativa.

## CAPÍTULO I
## FINALIDAD Y FUNCIONES

Artículo 1

Se crea OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales como organismo autónomo administrativo, ostentando personalidad jurídica propia y plena capacidad de obrar, adscrito al Departamento de Trabajo y Seguridad Social, con la finalidad de gestionar las políticas que en materia de seguridad, higiene, medio ambiente y salud laborales establezcan los poderes públicos de la Comunidad Autónoma, tendentes a la eliminación o reducción en su origen de las causas de los riesgos inherentes al medio ambiente de trabajo.

Artículo 2

1.- OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales extiende su actuación a todas las ramas de la actividad económica en que haya trabajadores empleados, incluidas las administraciones públicas. Asimismo extiende su actuación a las cooperativas de trabajo asociado y a las demás cooperativas en relación a sus socios de trabajo.

2.- OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales llevará a cabo actividades de promoción de la prevención de riesgos en relación con los trabajadores por cuenta propia.

Artículo 3

Para el cumplimiento de sus fines:

a) Gestiona los servicios correspondientes por medio de programas de actuación.

b) Proporciona asesoramiento a las empresas, trabajadores, asociaciones empresariales, sindicatos y administraciones públicas.

c) Lleva a cabo el seguimiento y evaluación de las actuaciones técnico-preventivas necesarias en materia de seguridad y salud laborales.

d) Promueve la adopción de las medidas preventivas precisas.

e) Eskatuz gero, erizpenak emango dizkie agintari aginpidedunei.

f) Lan Harremanetarako Kontseiluak eta Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak hala eskatuta, txostenak egingo ditu bere ardurapeko gaietan.

4. atala

1.- Hona hemen, besteak beste, OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak izango dituen egitekoak:

a) Laneko istripuak eta gaixotasunak izateko arrazoiak eta faktoreak aztertu eta ikertuko ditu, aurre hartzeko azterketak eginez eta zuzentzeko neurriak proposatuz. Lan-agintariei egindakoaren berri emango zaie. Industri segurtasunari buruzko erizpenak emango ditu, aginpidedun agintariek eskatuz gero.

b) Laneko ezbeharren gaineko argibideak eta estatistikako datuak aztertu, landu eta bilduko ditu, Euskal Autonomi Elkarteko Estatistika Legean ezarritakoaren arabera, estatistikak egin, aztertu eta baloratuko dituela Autonomi Elkartean. Era berean, Estatuan eta Europako Elkartean laneko segurtasun eta osasunaren arloan datuak biltzeko eratzen diren bat egindako informatika-egitarauak garatzen eta prestatzen lagunduko du.

c) Lanean sortutako gaixotasunak eta langileen osasunean laneko eta arriskuko faktoreek izan dezaketen eragina ikertzeko epidemia-zaintzarako sistema ezarriko du, Osasun Sailak osasun-informaziorako emandako norabideen arabera.

d) Laneko segurtasun, higiene eta osasunari buruzko metodoak eta teknikak ikertzeko egitarauak egin, sustatu eta garatuko ditu.

e) Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren bitartez, laneko segurtasun eta higieneari eta metodo ergonomikoei buruzko arauak, araubidea teknika aldetik aldatzeko ikerketak, txostenak eta proposamenak aurkeztuko dizkie administrazioei, eta ikastunen, adineko langileen eta haurdunaldian edo ugatzaldian dauden emakumeen lan-baldintzei buruzko gomendioak emango ditu.

f) Langileen osasunerako arriskutsuak izan daitezkeen neurrian, lanpostuen, lokalen, lantokien, lehengaien, tarteko eta azken gaien inguruko azterketak eta txostenak

e) Informa a las autoridades competentes cuando sea requerido para ello.

f) Elabora informes en materia de su competencia a petición del Consejo de Relaciones Laborales y del Consejo Económico y Social.

Artículo 4

1.- OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales realizará, entre otras, las siguientes funciones:

a) Analizar e investigar las causas y factores determinantes de los accidentes de trabajo y enfermedades profesionales, abordando su estudio preventivo y proponiendo las medidas correctoras procedentes. De dichas actuaciones se informará a la autoridad laboral. Igualmente se emitirán los informes que en su caso se soliciten por la autoridad competente, en materia de seguridad industrial.

b) Conocer, tratar y elaborar las informaciones y datos estadísticos sobre siniestralidad laboral, procediendo a la confección, estudio y valoración de estadísticas en el ámbito de la Comunidad Autónoma, de acuerdo con lo establecido en la ley de Estadística de la Comunidad Autónoma. Asimismo colaborará en el desarrollo y la confección de programas informáticos unificados, que se proyecten en el ámbito estatal y comunitario, para la recogida de datos en materia de seguridad y salud laborales.

c) Establecer un sistema de vigilancia epidemiológica responsable de investigar las enfermedades generadas en el trabajo y el impacto de los diferentes factores laborales y de riesgo en la salud de los trabajadores de acuerdo con las directrices del Departamento de Sanidad en materia de información sanitaria.

d) Elaborar, promover y desarrollar programas de investigación sobre métodos y técnicas de seguridad, higiene y salud en el trabajo.

e) Estudio, informe y propuesta a las distintas administraciones, a través del Departamento de Trabajo y Seguridad Social, de normas, reformas de la normativa en su aspecto técnico en materia de seguridad e higiene en el trabajo y métodos ergonómicos, y elaborar recomendaciones sobre condiciones de trabajo de aprendices, trabajadores de edad madura y mujeres durante los periodos de embarazo o lactancia.

f) Efectuar estudios, informes y asesoramiento sobre puestos, locales y centros de trabajo, materias primas y productos intermedios y finales, en la medida en que

egin eta aholkuak emango ditu.

g) Indarrean dauden arauekin bat etorriz, lanen baldintza teknikoei, kontzentrazioen kopuruei, onartu litezkeen kutsatzaile-mugei eta horiek denak baloratzeko moduei buruzko azterketak, ikerketak, txostenak eta proposamenak aurkeztuko dizkie Lan eta Gizarte Segurantza Sailari eta, hala badagokio, industriako segurtasunaren ardura duten agintariei.

h) Laneko segurtasun, higiene eta osasunari buruzko planak eta prestakuntza-ikastaroak programatu, antolatu eta bideratuko ditu.

i) Laneko arriskuei aurre hartzeko eta osasuna sustatzeko ezagupenak eta arau praktikoak jakinaraziko dizkie lan-emaileei eta langileei.

j) Enpresetako segurtasun eta higienearen mailei buruzko kontrol orokorrak eta arlokakoak programatu eta garatuko ditu, maila horiek igotzeko egin behar diren zuzenketetarako aholkuak emanez enpresetako legezko ordezkariei eta langileei.

k) Laguntza eta aholku teknikoa emango die enpresei, langileei, langile-elkarteei eta herri-agintariei.

l) Enpresek edo horien soldatapekoek norbanakoaren osasunerako zein gorputz osotasunerako galgarri izan daitezkeen lanbide-arriskuei aurre hartzeko arauak larriki zein behin eta berriro urratzen dituztenean, lan-agintaritza jakinaren gainean jartzea.

m) Enpresetako organo teknikoei aholkuak eman eta horien iharduna ebaluatuko du, laneko segurtasun, higiene eta osasunaren arloari dagokionez.

n) Laneko materialen eta erabiltzaileen arteko lotura aztertuko du.

ñ) Makineria, tresneria, lan-orduak eta lanaren antolaketa langileen gaitasun fisiko, sumameneko eta mentaletara egokitzeari buruzko azterketak egingo ditu.

o) Ekoizpeneko eragiketak eta prozesuak eta lan-erritmoak edo iharduketa-mailak langileen gaitasun fisiko, sumameneko eta mentaletara egokitzeari buruzko azterketak egin eta erizpenak emango ditu.

p) Emakume langileen haurdunaldian eta ugatzaldian kaltegarriak eta osasungaitzak izan daitezkeen lan-baldintzak aztertu eta zainduko ditu, hala behar izanez gero,

puedan conllevar riesgos para la salud de los trabajadores.

g) Realizar análisis, estudios, informes y propuestas al Departamento de Trabajo y Seguridad Social y, en su caso, a las autoridades responsables de la seguridad en la industria, de acuerdo con la normativa vigente, sobre las condiciones técnicas de los trabajos y sobre delimitación y fijación de concentraciones, límites permisibles de contaminantes y procedimientos para su valoración.

h) Programar, organizar y desarrollar planes y cursos de formación en relación con la seguridad, higiene y salud laborales.

i) Informar a empleadores y empleados de los conocimientos y prácticas de prevención de riesgos profesionales y promoción de la salud.

j) Programar y desarrollar controles generales y sectoriales sobre niveles de seguridad e higiene en las empresas, prestando a las mismas y a los representantes legales de los trabajadores el asesoramiento pertinente sobre las correcciones más convenientes para elevar dichos niveles.

k) Prestar asistencia y asesoramiento técnico a empresas, a trabajadores y sus organizaciones y a autoridades públicas.

l) Comunicar a la autoridad laboral los casos de contravención grave o reiterada por parte de las empresas o de su personal de normas de prevención de riesgos profesionales que pudieran entrañar peligro para la salud o integridad física de las personas.

m) Asesorar y evaluar el funcionamiento de los órganos técnicos de las empresas en materia de seguridad, higiene y salud laborales.

n) Estudio de la relación existente entre los componentes materiales de trabajo y las personas que los manipulan.

ñ) Estudio de la adaptación de la maquinaria, del equipo, del tiempo de trabajo y de la organización del trabajo a las capacidades físicas, sensoriales y mentales de los trabajadores.

o) Estudio y dictamen de la adaptación de las operaciones y procesos de producción, así como de los ritmos de trabajo o niveles de actividad, a las capacidades físicas, sensoriales y mentales de los trabajadores.

p) Estudio y vigilancia sobre las condiciones de trabajo que puedan resultar nocivas o insalubres durante los períodos de embarazo y lactancia de la mujer trabajadora, para

emakumeen lana epealdi horietako beharretara egokitzeko.

q) Langileen osasunerako ondorio kaltegarriak ekar ditzaketen lan-mikroklimaren faktoreak zehaztuko ditu eta horiei aurre hartuko.

r) Osasun-agintariek emandako norabideekin edo egitarauekin bat etorriz, langileen osasuna zainduko du, horien osasunean eraginik izan dezaketen arrisku- eta kalte-faktoreak aldez aurretik aurkitu eta banakatzeko.

s) Osasun-agintariek emandako norabideen edo egitarauekin bat etorriz, aurrehartzepolitikaren plangintza egiteko tresna izango den lan-arriskuen mapa egingo du.

t) Enpresetako mediku-zerbitzuen osasunbaimen, -ikuskapen eta -kontroleko aginpideak erabiliko ditu.

u) Sorgorgarriek, bai eta alkoholak eta tabakoak ere, laneko segurtasun eta osasunean duten eraginari buruzko azterlan eta txostenak eginez, lan-arloko drogamenpekotasunak zainduko ditu.

v) Laneko segurtasun, higiene eta osasunaren arloan aurre hartzeko eta sustatzeko helburuak betetzeko behar diren gainerako egiteko guztiak izango dituzte.

2.- Atal honetan adierazitako egitekoak osasun-agintaritzarekin, lan-agintaritzarekin eta lan, segurtasun eta higienearen baldintzak ikuskatzeko eta kontrolatzeko organoekin lankidetzan gauzatuko ditu. Halaber, Euskadiko Droga gaietarako Idazkaritza Nagusiaren txostenak ere kontuan izango dira lan-arloari dagozkionetan.

3.- Egiteko horietan OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko langileak agintaritza publikoaren eskuduntzat joko dira, eta lantokietako titularrek bertara sartzen utzi beharko diete, inolako trabarik jarri gabe. Enpresariek eta langileek lagundu egin beharko diete OSALANeko langileek ondo burutu ditzaten beren egitekoak.

4.- Berariazko ikerketa eta azterketak egiteko zientzia eta teknikako batzordeak sortu ahal izango dira, Kontseilu Nagusiak erabakitzen dituen ezaugarri bereziei begira.

## II. ATALBURUA
## ANTOLAKETA ETA LEGE JAURBIDEA

### 5. atala

OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko organoak Kontseilu Nagusia eta Zuzendaritza Nagusia izango dira.

acomodar en caso necesario su actividad laboral a un trabajo compatible durante los periodos referidos.

q) Determinar y prevenir los factores de microclima laboral en cuanto puedan ser causantes de efectos nocivos para la salud de los trabajadores.

r) Vigilar la salud de los trabajadores para detectar precozmente e individualizar los factores de riesgo y deterioro que puedan afectar a la salud de los mismos, según las directrices o programas emanados de las autoridades sanitarias.

s) Elaborar un mapa de riesgos laborales que sirva de instrumento para planificar la debida política de prevención, según las directrices o programas emanados de las autoridades sanitarias.

t) Ejercitar las competencias de autorización, inspección y control sanitarios de los servicios médicos de empresa.

u) Vigilar el fenómeno de la drogodependencia en el ámbito laboral, elaborando estudios e informes sobre la incidencia en la seguridad y salud laborales de las sustancias estupefacientes y del alcohol y el tabaco.

v) Cuantas otras sean necesarias para el cumplimiento de sus fines de prevención y promoción de la seguridad, higiene y salud laborales.

2.- Las funciones expresadas en este artículo se desarrollarán en coordinación con la autoridad sanitaria, con la autoridad laboral y con los órganos de inspección y control de las condiciones de trabajo y seguridad e higiene. Asimismo se considerarán los informes de la Secretaría General de Drogodependencias de Euskadi en lo concerniente al ámbito laboral.

3.- En el ejercicio de sus funciones, el personal de OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales tendrá la consideración de agente de la autoridad pública, debiendo los titulares de los centros de trabajo facilitar el libre acceso a los mismos. Empresarios y trabajadores prestarán su colaboración a dicho personal para el mejor cumplimiento de sus funciones.

4.- Se podrán crear comisiones científico-técnicas para el desarrollo de investigaciones y análisis específicos en atención a las características especiales que el Consejo General considere.

## CAPÍTULO II
## ORGANIZACIÓN Y RÉGIMEN JURÍDICO

### Artículo 5

Los órganos de OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales son los siguientes: el Consejo General y la Dirección General.

6. atala

1.- Kontseilu Nagusia izango da gizarte-sailek OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundean parte hartzeko organoa. Lan eta Gizarte Segurantza sailburuordea izango da lehendakari, gaia dela eta berak baitu aginpidea; lehendakariorde, berriz, Osasun Saileko sailburuordea izango da, berak duenez aginpidea gai horretan.

2.- Honako kide hauek izango ditu: langileen aldetik, sindikatuetako lau ordezkari, erakundeek finkatutako zenbatzeko epean sindikatuen hauteskundeetan lortutako ordezkaritzaren arabera; lan-emaileen aldetik, Autonomi Elkartearen eremuan ordezkatuta dauden enpresari-elkarteetako bi kide, Koperatiben Kontseilu Nagusiko kide bat eta Eusko Jaurlaritzak, udalei eta foru-aldundiei entzun ondoren, izendatutako beste bat.

3.- Gaian aginpidea dutenez, Osasun Saileko bi ordezkari Kontseilu Nagusiko kide izango dira, horietako bat lehendakariorde izango dela. Lan eta Gizarte Segurantza Sailak ere bi ordezkari izango ditu.

4.- Kontseiluko idazkariaren egitekoak kontseiluak berak izendatutako lagun batek beteko ditu, Kontseiluko kide izan daitekeela ala ez. Izendatutako idazkaria Kontseilu Nagusiko kide ez bada, hizpidea bakarrik izango du.

5.- Zuzendari nagusia Kontseilu Nagusiko bilkuretan izango da, eta hizpidea izango du baina ez botorik.

6.- Kontseilu Nagusia hiru hilabetez behin bilduko da gutxienez, edo kideen laurdenak eskatzen duenean, lehendakariak deituta.

7.- Kontseilu Nagusiko kideak, dagokion erakundeak eta administrazioak proposatuta, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren aginduz izendatu eta kenduko dira.

7. atala

Hona Kontseilu Nagusiaren egitekoak:

a) Segurtasun eta higienearen arloan Zuzendaritza Nagusiak egin ditzan egitarauak eta ekintza-planak onartzea.

b) Osasun Sailak laneko osasunaren arloan proposatutako ekintza-egitarauari buruzko erizpidea ematea.

c) Laneko segurtasun eta osasunaren arloko prestakuntzarako ekintza-egitaraua onartzea.

Artículo 6

1.- El Consejo General será el órgano de participación de los agentes sociales en OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales. Estará presidido por el Viceconsejero del Departamento de Trabajo y Seguridad Social competente por razón de la materia, siendo su Vicepresidente el Viceconsejero del Departamento de Sanidad igualmente competente por razón de la materia.

2.- Así mismo, estará integrado por los siguientes vocales: por la parte social, cuatro representantes de los sindicatos en función de la representación obtenida en las elecciones sindicales en el período de cómputo institucional; por la parte empleadora habrá dos en representación de las asociaciones empresariales representativas en el ámbito de la Comunidad Autónoma, uno del Consejo Superior de Cooperativas, y uno por designación del Gobierno Vasco, oídos los ayuntamientos y diputaciones forales.

3.- En razón de su competencia en la materia, serán vocales del Consejo General dos representantes del Departamento de Sanidad, uno de los cuales será el Vicepresidente, y dos representantes del Departamento de Trabajo y Seguridad Social.

4.- Desempeñará las funciones de Secretario del Consejo una persona designada por el propio Consejo, que podrá o no tener la consideración de miembro del mismo. En el caso de que el Secretario designado no tenga la consideración de miembro del Consejo General, tendrá derecho sólo a voz.

5.- El Director General asistirá a las sesiones del Consejo General con voz pero sin voto.

6.- El Consejo General se reunirá al menos una vez cada trimestre, o cuando lo solicite un cuarto de sus miembros, a convocatoria de su Presidente.

7.- Los vocales del Consejo General serán nombrados y cesados por orden del Departamento de Trabajo y Seguridad Social a propuesta de las organizaciones y administraciones afectadas.

Artículo 7

El Consejo General tendrá las siguientes funciones:

a) Aprobar los programas y planes de actuación que en materia de seguridad e higiene elabore la Dirección General.

b) Informar el programa de actuación en materia de salud laboral propuesto por el Departamento de Sanidad.

c) Aprobar el programa de actuación en materia de formación en seguridad y salud laborales.

d) OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak dituen plangintza eta egitaraugintzako ekintzak bultzatzea.

e) Egitarauak gauzatzeari eta zerbitzuen kudeaketari buruzko kontrola eta zaintza; Zuzendaritza Nagusiak behar diren argibide guztiak emango dizkio egiteko hori burutzeko.

f) OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen aurrekontuaren aurregitasmoa proposatzea Lan eta Gizarte Segurantza Sailari.

g) Urteko txostena onartzea, urteko lehen hiruhilabetekoan Lan eta Gizarte Segurantza Sailari bidaltzeko.

h) Proposamenak eta eskariak Lan eta Gizarte Segurantza Sailari eta Osasun Sailari aurkeztea.

i) Barne-iharduerari buruzko araudia onartzea.

**8. atala**

Kontseilu Nagusiak bere egitekoak ondo betetzeko egokitzat jo ditzan batzorde bereziak eratu ahal izango ditu.

**9. atala**

1.- OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusia Eusko Jaurlaritzaren dekretuz izendatuko da eta, hala badagokio, kenduko. Horretarako proposamena Lan eta Gizarte Segurantza sailburuak egingo du, Kontseilu Nagusian ordezkaririk duten erakundeei iritzia eskatu ondoren.

2.- Zuzendari Nagusiaren erabakiek amaiera emango diote administrazio-bideari.

**10. atala**

Hona OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren egitekoak:

a) Zerbitzuen zuzendaritza eta langileen buru izatea.

b) Aurrekontuaren aurregitasmoa egitea eta idaztea, Kontseilu Nagusiari eta Lan eta Gizarte Segurantza Sailari aurkezteko.

c) OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen gastuak baimentzea eta ordainketak agintzea, bai eta erakundearen ekonomia-eskubideak administratzea, kudeatzea eta gauzatzea ere dagozkion arauetan ezarritakoaren arabera.

d) OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen legezko ordezkaritza.

d) Impulsar las actividades de planificación y programación propias de OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales.

e) Realizar funciones de control y vigilancia sobre la ejecución de los programas y la gestión de los servicios, a cuyo fin la Dirección General le proporcionará cuanta información precise.

f) Proponer al Departamento de Trabajo y Seguridad Social el anteproyecto de presupuesto de OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales.

g) Aprobar la memoria anual, para su remisión al Departamento de Trabajo y Seguridad Social en el primer trimestre de cada año natural.

h) Elevar propuestas y peticiones al Departamento de Trabajo y Seguridad Social y al Departamento de Sanidad.

i) Aprobar el reglamento de funcionamiento interno.

**Artículo 8**

El Consejo General podrá constituir las comisiones específicas que considere necesarias para el mejor cumplimiento de sus fines.

**Artículo 9**

1.- El Director General de OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales será nombrado, y en su caso cesado, por decreto del Gobierno Vasco, a propuesta del Consejero de Trabajo y Seguridad Social, previa consulta a las organizaciones representadas en el Consejo General.

2.- Las resoluciones del Director General pondrán fin a la vía administrativa.

**Artículo 10**

Son funciones del Director General de OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales:

a) La dirección de los servicios y jefatura del personal.

b) La elaboración y redacción del anteproyecto de presupuestos para su presentación al Consejo General y al Departamento de Trabajo y Seguridad Social.

c) La autorización de gastos y ordenación de pagos de OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales, así como la administración, gestión y efectividad de sus propios derechos económicos en los términos previstos en la normativa correspondiente.

d) La representación legal de OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales.

e) Kontseilu Nagusiari nahitaez erizpena eskatuta, hitzarmenak eta akordioak izenpetzea erakunde publiko eta/edo pribatuekin, OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen egitarauak betetzeko, Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioaren eremuan ezarritako arau orokorren esparruan.

f) Ekintzen urteko txostena gauzatzea, urteko lehen hiruhilabetekoan Kontseilu Nagusiari bidaltzeko.

g) Lan eta Gizarte Segurantza Sailari, Osasun Sailari eta Kontseilu Nagusiari beren egitekoak betetzeko behar dituzten argibide guztiak ematea.

h) Autonomiadun erakundeari jarritako helburuak izan eta beste erakunderen batek aitortuta ez dituenak betetzeko aginpideak gauzatzea.

11. atala

1.- Zuzendaritza Nagusiaren egitura eta zerbitzuak, eta zerbitzuok zeinen menpean ihardungo duten, araudi bidez erabakiko dira.

2.- Nolanahi ere, Laneko Osasun Unitate bat eratuko da, eta egituraren aldetik OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen menpeko izango bada ere, iharduerari dagokionez Osasun Sailaren menpe egongo da. Indarrean dagoen legedian ezarritakoaren ondorioetarako, osasun-agintaritza izango da.

3.- Osasun Sailak, urteko lehen lauhilabetekoan, laneko segurtasunari buruzko ihardueren egitaraua egin eta aurkeztuko dio OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen Kontseilu Nagusiari, hurrengo urtean gauzatzeko.

OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen Laneko Osasun Unitateak ezin badu egitarau hori osorik atera aurrera, Osasun Saileko zerbitzuei eskatuko zaie laguntza beste inori baino lehen. Hala egokituz gero, hitzarmena egiteko proposamena aurkeztuko da.

4.- Bestalde, laneko osasuneko egitaraua betetzeko, zenbait zerbitzu itundu ahal izango da laneko istripu eta gaixotasunetarako Gizarte Segurantzako taramekin -babes-organoek baimena emanez gero- eta koperatiben arloan diharduten helburu bereko beste erakunde batzuekin.

5.- Osasun Sailak proposatutako laneko osasunari buruzko iharдueren egitaraua eta, hala badagokio, hitzarmena, zuzendari nagusiak onartuko ditu, aurkeztu eta hurrengo bi hilabeteen barruan, Kontseilu Nagusiak erizpena eman ondoren. Onartu ezean, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari bidaliko dizkio egitaraua, edo hitzarmena,

e) Suscribir convenios y acuerdos, previa información preceptiva al Consejo General, con entidades públicas y/o privadas para el cumplimiento de los programas de OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales, en el marco de las normas generales establecidas en el ámbito de la administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

f) La elaboración de la memoria anual de actividades para su remisión al Consejo General dentro del primer trimestre de cada año natural.

g) Proporcionar a los Departamentos de Trabajo y Seguridad Social y de Sanidad y al Consejo General cuanta información necesiten para el cumplimiento de sus funciones.

h) El ejercicio de aquellas facultades, para el cumplimiento de los fines encomendados al organismo autónomo que no se encuentren atribuidas a otros órganos.

Artículo 11

1.- La estructura orgánica de la dirección general y los servicios, así como la dependencia funcional de éstos, se establecerán reglamentariamente.

2.- En todo caso habrá una Unidad de Salud Laboral que, sin perjuicio de su dependencia orgánica de OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales, dependerá funcionalmente del Departamento de Sanidad, y tendrá el carácter de autoridad sanitaria a los efectos previstos en la legislación vigente.

3.- El Departamento de Sanidad elaborará y presentará al Consejo General de OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales, en el primer cuatrimestre de cada año, un programa de actuación en materia de salud laboral para su ejecución en el siguiente año natural.

En el caso de que la ejecución de dicho programa no pudiera llevarse a cabo en su integridad por la Unidad de Salud Laboral de OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales, se recurrirá preferentemente a los servicios propios del Departamento de Sanidad. En este caso presentará una propuesta de convenio.

4.- Igualmente podrá concertarse la prestación de servicios en orden al cumplimiento del programa de salud laboral con las mutuas de accidentes de trabajo y enfermedades profesionales de la Seguridad Social, previa autorización de su órgano tutelante, y otras entidades que actúen con semejante finalidad en el sector cooperativo.

5.- El programa de actuación en materia de salud laboral y, en su caso, el convenio, propuestos por el Departamento de Sanidad, habrán de ser aprobados, previo informe del Consejo General, por el Director General en los dos meses siguientes a su presentación. En caso de no ser aprobado remitirá los mismos, junto a su infor-

eta erizpen-txostena, Jaurlaritzari aurkezteko. Jaurlaritzak dagokion erabakia hartuko du.

6.- Laneko Osasun Unitateak enpresako mediku-zerbitzuen eta laneko istripu eta gaixotasunetarako Gizarte Segurantzako taramen laguntza-zerbitzuei buruzkoan euskal administrazioari aitortutako laneko osasun-alorreko aginpideak erabiliko ditu, ezarri beharreko arauekin bat etorriz, eta Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzarekin elkarlanean.

12. atala

OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen ogasunak eta baliabideak honako hauek izango dira:

a) Euskal Autonomi Elkartearen aurrekontu orokorretan izendatutako dirua.

b) OSALANen izenean dauden edo berari atxikitako ondasunak eta eskubideak, eta horien etekinak.

c) Ikerketa, teknika edo prestakuntzako iharduerak gauzatzerakoan, baimendutako zerbitzuetatik eratorritakoak.

d) Aitortu dakiokeen beste edozein baliabide.

ERABAKI GEHIGARRIAK

Lehenengoa

OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeari atxikiko zaizkio, abenduaren 18ko 2.557/85 Errege Dekretuaren bidez Euskal Autonomi Elkarteari eskualdatutako Laneko Segurtasun eta Higienerako Probintziako Kabinete Teknikoen ogasunak eta zerbitzuak.

Bigarrena

Lege hau indarrean jartzerakoan Segurtasun eta Higienerako Kabineteetan dihارduten Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioko langileak OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeari atxikiko zaizkio. OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeari atxikiko zaizkio, halaber, lege honen bidez Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeari aitortutako egitekoetan ari diren Lan eta Gizarte Segurantza Saileko, Osasun Saileko eta Osakidetzako langileak.

Hirugarrena

1.- Lege hau indarrean jartzen denetik hasita, lankide-koperatibetako lan-bazkideei eta gainerako koperatibetako lan-bazkideei besteren konturako langileak dituzten enpresetan indarrean dagoen laneko segurtasun, higiene eta osasunari buruzko legedia ezarriko zaie.

me, al Departamento de Trabajo y Seguridad Social para su presentación al Gobierno, que adoptará la resolución que proceda.

6.- La Unidad de Salud Laboral ejercitará asimismo aquellas competencias que en el ámbito de la salud laboral se atribuyan a la administración vasca en relación con los servicos médicos de empresa y con los servicios asistenciales de las mutuas de accidentes de trabajo y enfermedades profesionales de la Seguridad Social de acuerdo con la normativa que resulte de aplicación y en coordinación con la Inspección de Trabajo y Seguridad Social.

Artículo 12

Los recursos de OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales estarán constituidos por:

a) Los créditos consignados dentro de los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma.

b) Los bienes y derechos de que sea titular o tenga adscritos, y los productos y rendimientos de los mismos.

c) Los que se deriven de las prestaciones de servicios debidamente autorizados en el ejercicio de su actividad investigadora, técnica o formativa.

d) Cualquier otro recurso que pueda serle atribuido.

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera

Quedan afectos a OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales los bienes y servicios provenientes de los Gabinetes Técnicos Provinciales de Seguridad e Higiene en el Trabajo que han sido transferidos a la Comunidad Autónoma de Euskadi mediante el Real Decreto 2.557/85, de 18 de diciembre.

Segunda

El personal al servicio de la Administración de la Comunidad Autónoma que a la entrada en vigor de esta ley estuviera prestando sus servicios en los actuales Gabinetes de Seguridad e Higiene en el Trabajo quedará integrado en OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales. Así mismo, quedará integrado en dicho OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales el personal de los Departamentos de Trabajo y Seguridad Social y de Sanidad, y del Servicio Vasco de Salud-Osakidetza, que realice funciones atribuidas por la presente ley al Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales.

Tercera

1.- A partir de la entrada en vigor de la presente ley será aplicable a las cooperativas de trabajo asociado en relación con sus socios trabajadores, y a las demás cooperativas en relación con sus socios de trabajo, la legislación sobre seguridad, higiene y salud laborales vigente en relación con las empresas que empleen trabajadores por cuenta ajena.

2.- Lege hau indarrean jartzen denetik hasita, halaber, besteren konturako langileak dituzten enpresetan indarrean dagoen laneko segurtasun, higiene eta osasunari buruzko legedia ezarriko zaie euskal herri-administrazioetako herri-lanariei.

Laugarrena

1.- Kontseilu Nagusia osatzeko, enpresetako langileen eta herri-administrazioetako herri-lanarien ordezkapen-organoetarako hauteskundeetako emaitzei begiratuko zaie. Emaitzen aldarrikapen ofiziala egin eta bi hilabeteko epean osatuko da kontseilua.

Era berean, Kontseilu Nagusiak eratu ditzakeen batzorde bereziak osatu, dagokion lurralde edo arloko hauteskundeetako emaitzei egokituz osatuko dira.

2.- Aurreko lerroaldian ezarritakoaren ondorioetarako, hurrengo arauen arabera lortutako ordezkari-kopuruari begira izendatuko dira kideak:

a) Ateratako ordezkari-kopuruaren araberako hurrenkeran jarriko dira sindikatuak.

b) Sindikatu bakoitzak ateratako ordezkarien kopurua zati bat, bi, hiru eta lau egingo da.

c) Zatiketa eginda emaitzarik altuenak dituzten sindikatuetako ordezkariak izendatuko dira kide.

ALDI BATERAKO ERABAKIAK

Lehenengoa

1.- Lankide-koperatibek eta euskal herri-administrazioek sei hilabete izango dituzte, lege hau indarrean jartzen denetik hasita, hirugarren erabaki gehigarrian adierazitakoaren arabera ezarri beharreko legediaren aginduetara egokitzeko.

2.- Agindu horietara egokitzeko eragozpen berezirik izanez gero, eta lan-agintaritzak zailtasun horiek behar bezala egiaztatzen baditu, urtebeteko epea eman ahal izango da, erakundearen ezaugarriak kontuan hartuta.

Bigarrena

1.- OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren aginduz hasiko da ihardunean, lege hau indarrean jarri eta hamabi hilabeteko epean luze jota.

2.- Igualmente, a partir de la entrada en vigor de la presente ley será extensible a las administraciones públicas vascas, en relación con sus empleados públicos, la legislación sobre seguridad, higiene y salud laborales vigente en relación con las empresas que empleen trabajadores por cuenta ajena.

Cuarta

1.- La composición del Consejo General se adecuará a los resultados que arrojen los sucesivos procesos electorales a los órganos de representación de los trabajadores en las empresas y de los empleados públicos en las administraciones públicas, en el plazo de dos meses a partir de su proclamación oficial.

De igual forma, la composición de las comisiones específicas que se pudieran constituir por el Consejo General se adecuará a los resultados que arrojen los sucesivos procesos electorales en el ámbito territorial o sectorial respectivo.

2.- A los efectos previstos en el párrafo anterior, los vocales serán atribuidos en función del número de representantes obtenidos conforme a las reglas siguientes:

a) Se ordenarán los sindicatos por el número de representantes obtenido;

b) Se dividirá el número de representantes obtenido por cada sindicato por uno, por dos, por tres, y por cuatro;

c) Los vocales se atribuirán a los sindicatos a los que correspondan los mayores cocientes.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

Primera

1.- Tanto las sociedades cooperativas de trabajo asociado como las administraciones públicas vascas dispondrán de seis meses, a partir de la entrada en vigor de la presente ley, para adaptarse a los requerimientos de la legislación que resulte aplicable a tenor de lo dispuesto en la disposición adicional tercera.

2.- En los casos en que tal adaptación comporte dificultades excepcionales debidamente constatadas por la autoridad laboral, tomando en consideración las características de la entidad, el plazo podrá ampliarse hasta un año.

Segunda

1.- OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales iniciará sus actividades mediante orden del Consejero de Trabajo y Seguridad Social en el plazo máximo de doce meses desde la entrada en vigor de la presente ley.

Ihardunean hasi bitartean, orain arteko zuzendaritzek eta zerbitzuek jarraituko dute erakundearen egitekoak betetzen.

2.- OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea ihardunean hasiko den ekonomia-urtealdiko aurrekontua Jaurlaritza Kontseiluak onartuko du, eta hamabost eguneko epean Eusko Legebiltzarreko Ekonomia, Herriogasun eta Diruegitamuen batzordeari jakinaraziko dio. Ekonomia eta Ogasun Sailak behar diren aldaketak egingo ditu aurrekontu hori osatzeko, baina ezin izango du, inoiz, lege hau indarrean jartzen den urtealdiko aurrekontu orokorretako ukitutako diru-izendapenen guztizko zenbatekoa gehiagotu.

INDARGABETZEKO ERABAKIA

Indargabeturik geratzen da Osakidetzari buruzko maiatzaren 19ko 10/83 Legearen 2 c) atala.

AZKEN ERABAKIAK

Lehenengoa

Lege hau indarrean jarri eta sei hilabeteko epean, OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen egitura eta iharduerako araudia onartuko du Jaurlaritzak, Kontseilu Nagusiak adostasuna erakutsi ondoren.

Bigarrena

Esku ematen zaio Jaurlaritzari, Osasunaren Plan Estrategikoan adierazitako osasun-sistemaren antolaketa berriaren ondorioz, OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeari aitortu diezazkion lan-ezintasunen kontrola, zaintza eta ebaluazioa gauzatzeko aginpideak eta egitekoak, eta horretarako baliabideak.

Hirugarrena

Jaurlaritzak behar diren erabakiak emango ditu lan-arloko arau-hausteei eta zigorrei buruzko legedian ezarritako zigor-ihardunbidea koperatibei eta euskal herri-administrazioei egokitzeko. Ikuskaritza eta zigor-proposamenak OSALANeko zerbitzuek egingo dituzte, eta erabakia Lan Sailak edo Eusko Jaurlaritzak emango du, zigorren zenbatekoa kontuan hartuta.

Laugarrena

Esku ematen zaio Jaurlaritzari, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean indarrean jarriko den lege hau garatu eta gauzatzeko behar diren erabakiak emateko.

En tanto no se produzca tal inicio, las funciones encomendadas serán desempeñadas por las Direcciones y Servicios que actualmente prestan las mismas.

2.- El presupuesto de OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales correspondiente al ejercicio económico en que inicie sus actividades será aprobado por el Consejo de Gobierno, quien dará cuenta a la Comisión de Economía, Hacienda y Presupuestos del Parlamento Vasco en el plazo de 15 días. A tales efectos, y por el Departamento de Economía y Hacienda, se realizarán las modificaciones presupuestarias que fuesen necesarias para la formación de dicho presupuesto, sin que puedan suponer un incremento del importe global consignado en las partidas afectadas de los Presupuestos Generales en vigor a la entrada de la presente ley.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogado el artículo 2 c) de la ley 10/83, de 19 de mayo, del Servicio Vasco de Salud-Osakidetza.

DISPOSICIONES FINALES

Primera

En el plazo de seis meses desde la entrada en vigor de la presente ley, previo acuerdo del Consejo General, el Gobierno aprobará el reglamento de estructura y funcionamiento de OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales.

Segunda

Se autoriza al Gobierno para que, como consecuencia de la reorganización del sistema sanitario resultante del Plan Estratégico de Salud, proceda a atribuir a OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales las competencias y funciones relativas al control, vigilancia y evaluación de las incapacidades laborales, así como los medios precisos para su ejecución.

Tercera

El Gobierno dictará las disposiciones necesarias para adaptar el procedimiento sancionador previsto en la legislación sobre infracciones y sanciones del orden social al ámbito de las Cooperativas y de las administraciones públicas vascas. Las funciones de inspección y propuesta de sanción serán realizadas por los propios servicios de OSALAN, correspondiendo dictar resolución al Departamento de Trabajo o al Gobierno Vasco en función de la cuantía de las sanciones.

Cuarta

Se autoriza al Gobierno para dictar las demás disposiciones precisas para el desarrollo y ejecución de la presente ley, que entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Beraz, Lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei.

Ajuria-Eneako Jauregia, 1993ko abenduak 30.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIÓ ARDANZA GARRO.

56

8/1993 LEGEA, abenduaren 21ekoa, 93/96 Euskal Estatistika Plana onartzen denekoa.

Eusko Legebiltzarrak ondoko Legea onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei:

ABENDUAREN 21EKO 8/1993 LEGEA, 93/96 EUSKAL ESTATISTIKA PLANA ONARTZEN DENEKOA.

Zioen adierazpena

Euskal Autonomi Elkarteko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legea gai horren araugintza-zutabea da; herri-erakundeen iharduketaren egiturazko araupetze egonkorra ezartzen du, horren garapenera zuzendutako antolamendua erabakitzen, eta, gainera, Autonomi Elkarteko lurralde-eremuan dauden lurralde historiko eta gainontzeko herri-erakundeetako estatistikekin batera jokatzeko neurriak ere baditu. Horri dagokionez, bada, abiapuntu nahitaezkoa eta saihestezina da.

Hala ere, aipatu legea ez da berari dagokion gaia agortzen duen araudia; alderdi hori aipatuta zegoen jadanik lege horren zioen adierazpenean, Euskal Estatistika Plana onartuko zuenarekin osatuko zela baitzioen maila beheragoko beste zenbait erabaki gorabehera. Hain zuzen ere, 4/1986 Lege haren iharduketa-esparruaren goiko erpina da, Euskal Autonomi Elkarteko estatistika-iharduna denboraldi baterako antolatzen duen tresna gisa itxuratu duelako eta, sistemaren nukleoari dagokionez, lege-mailako arau baten esku utzi duelako onespena.

Lehenengo planak -1989/1992.erainokoa eta urteroko programetan garatua- denboraldi horretarako aurrikusitako estatistikak erabaki zituen, nork garatuko zituen eta zein baldintza teknikotan, alegia. Plan horren indarraldia agortu da, eta bidezkoa da Eusko Legebiltzarrak beste bat onartzea lege honen bidez.

Oinarri horiei jarraiki, lege honekin 1993/1996 Euskal Estatistika Plana onartzeari ekingo zaio.

Bere helburuarekin bat etorriz, lege honetako lehen atalburua planaren mugakotari buruzkoa da, legea kokatzen eta mugatzen duten bi koordenatuak -gaia eta denbora- zedarriztatzearen bidez.

Lehen atala gaiaren koordenatuari buruzkoa da,

Por consiguiente, ordeno a todos los ciudadanos de Euskadi, particulares y autoridades, que la guarden y hagan guardarla.

Palacio de Ajuria-Enea, a 30 de diciembre de 1993.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

56

LEY 8/1993, de 21 de diciembre, por la que se aprueba el Plan Vasco de Estadística 93/96.

Se hace saber a todos los ciudadanos de Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la siguiente:

LEY 8/1993, DE 21 DE DICIEMBRE, POR LA QUE SE APRUEBA EL PLAN VASCO DE ESTADÍSTICA 93/96.

Exposición de motivos

La Ley 4/1986, de 23 de abril, de Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi, constituye el pilar normativo de dicha materia, dado que establece la regulación estructural y estable de la actuación pública, determina la organización dedicada a su desenvolvimiento y dispone unas medidas de articulación con las estadísticas de los territorios históricos y demás entes públicos comprendidos en el ámbito territorial de la Comunidad. Es, pues, a este respecto, el necesario e insoslayable punto de partida.

Sin embargo, la citada ley no es una normativa agotadora de su objeto material, aspecto ya anunciado en su exposición de motivos al decir que se vería complementada por la que aprobase el Plan Vasco de Estadística, independientemente de otras disposiciones de inferior rango. En efecto, dicho plan viene a constituir el vértice superior del marco de actuación que aquella Ley 4/1986 define, al configurarlo como el instrumento ordenador de la actividad estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi durante un periodo de tiempo y, dado su carácter nuclear del sistema, al reservar su aprobación a norma con rango de ley.

El primer plan, correspondiente al periodo 1989/92 y desarrollado en programas anuales, determinó las estadísticas previstas para dicho periodo, por quién se iban a llevar a cabo y en qué condiciones técnicas. Este plan ha agotado su vigencia, y procede que el Parlamento Vasco apruebe uno nuevo por medio de la presente ley.

De acuerdo con estas premisas, la presente ley procede a aprobar el Plan Vasco de Estadística 1993/96.

En congruencia con su finalidad, el capítulo primero de esta ley se refiere a la determinación del plan, mediante el acotamiento de las dos coordenadas, material y temporal, que la sitúan y encuadran.

El artículo 1 se dedica a la primera de dichas co-